



ORKOIENGO UDALAREN 2023. URTEKO KULTURA-, HEZKUNTZA-, JOLAS- ETA GIZARTE-JARDUERAK SUSTATZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIREN OINARRIAK.

Orkoien Udalak, bere aurrekontuak ezartzen dituen mugen barruan eta Kultura Zerbitzuaren bitartez, udalerriko elkarte soziokulturalen eta talde artistikoen aldeko dirulaguntzen deialdia egiten du, 2023an egingen diren programetarako.

1. - Xedea

Dirulaguntza deialdi honen xedea da, gizarte-elkarte eta -erakundeen parte-hartzea bultzatzea Orkoien Udalak interes sozialekotasun ulertzen dituen kultura-, hezkuntza-, jolas- eta gizarte- jardueren sustapen-lanetan.

Dirulaguntza gisa hartuko da aurkezten diren Elkarte, Ente edo Kolektibo baten alde, Udalak eginiko diru ordainketa edo gauza bidezko ordainketa oro.

2. – Elkarte eta Erakundeen laguntza eskatzeko betekizunak

Deialdi honetan parte hartu ahal izanen dute elkarte soziokulturalek eta herriko erakundeek, beti ere baldintza hauek betetzen badituzte:

- Eskaera aurkezten den egunean legez eratuta egotea
- Egoitza soziala Orkoien izatea
- Nafarroako Gobernuak Elkartearen Erregistroan eta Entitatearen Udal Erregistroan inskribatuta egotea.
- Irabazi-asmorik ez izatea.
- Bere kultura-jarduera eta dirulaguntzaren xede diren proiektuak Orkoien garatzea
- Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Udalaren zerga-betebeharrak egunean izatea

3. – Eskaerak aurkezteko epea eta lekua

Eskaerak aurkezteko epea Udaletxeko iragarki-oholean argitaratzen denetik 20 egun naturalekoa izango da. Dokumentazioa, bai eskaera eta baita justifikazioa ere, erregistro elektronikoa bidez aurkeztuko dira, helbide honetan: <https://orkoien.sedelectronica.es>

Oinarri hauek eta erantsitako dokumentuak eskuragarri daude Orkoien Udaleko Kultura eta Kirol Zerbitzuaren bulegoetan eta www.orkoien.com webgunean.

4. – Aurkeztu beharreko agiriak

Deialdi honetara aurkezten diren elkarteek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- 1. ereduaren fitxa, erakunde edo elkarte eskatzaile bakoitzeko (**1. ERANSKINA**)
- 2. ereduaren fitxa, dirulaguntza eskatzen den jarduera bakoitzeko bat (**1. ERANSKINA**)
- Banku-titulartasunaren ziurtagiria, dirulaguntza ordainduko den kontu korrontearen titulartasuna ziurtatzen duena (Ziurtagiri hori dirulaguntza eman izanaren jakinarazpenean aurkeztu beharko da).





Eskaera guztiz beteta ez badago edo programa behar bezala egiaztatuta ez badago, Udalak gehienez 10 egun balioduneko epean zuzentzeko eskatu ahal izanen du, jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.

Era berean, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 8. Xedapen Gehigarriarekin bat etorritz, elkarteek beren eskaeran datuak ematen badituzte, Udalak datu horiek zehatzak diren egiaztatzeko beharrezkoak diren egiaztapenak egin ahal izanen ditu.

5. - Esleipena

Dirulaguntzen deialdi honen xede diren esleitu beharreko zenbatekoak, 2022an indarrean dagoen aurrekontuko 3340 4820000 – “Kultura Elkarreentzat dirulaguntzak” partidatik ordainduko dira.

Batzorde batek aztertu eta baloratuko ditu aurkeztutako eskaerak, eta Udal Organo eskudunari helaraziko dio, gehienez ere hilabeteko epean, dirulaguntzak emateko behin-behineko proposamena egiten denetik aurrera.

Behin-behineko ebazpen hori, behar bezala arrazoitua egonen da, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie 10 egun balioduneko epean alegazioak aurkez ditzaten, egoki iritziz gero.

Batzordea honako hauek osatuko dute:

- Presidentea: Kultura eta Kirol zinegotzia.
- Batzordekideak: Euskara Zinegotzia, Udaleko Euskara Teknikaria eta Udaleko Gizarte Hezitzailea.
- Idazkaria: Udaleko Kultura eta Kiroleko udal-teknikaria.

6. – Balorazio-irizpideak

Dirulaguntzak esleitzeko, Batzordeak baloratuko du aurkeztutako programak deialdiaren xedeari erantzuten dion, jardueren interesa, parte-hartzaileen edo onuradunen kopurua eta jarduerak gizartean duen eragina.

Batzordeak aurkeztutako proiektu edo jardueran, honako irizpide orokor hauek hartuko ditu kontuan:

1.-Aurkeztutako programaren kalitatea eta interesa.

- Jarduera bakoitzaren interes kulturala.
- Udalaren kultur programarekiko osagarritasuna.
- Udalerriko bizitza kulturala dinamizatzea.
- Proposamena berritzailea den eta sormena.

2.-Kostuak egokitzea, beste diru-sarrera batzuk eta programaren bideragarritasuna.

3.-Erakundearen ibilbidea eta aurreko urtean aurkeztutako programa betetzea.

4.-Programan aurreikusitako parte-hartzaileen kopurua.

5.-Jarduerak udalerrian izanen duen eragina.

6.-Erakunde edo Elkartea Orkoien Udalaren kultura-programekin elkarlanean aritzea.





7. – Laguntza jaso dezaketen jarduerak

Elkarteek honako jarduera hauek aurkeztu ahal izango dituzte dirulaguntza-xede bezala: arautu gabeko prestakuntza-jarduerak, kultura ekintzak eta herritarren parte-hartzea sustatzen duten jarduerak, bai eta elkartearen edo erakundearen helburuetatik eratorritako beste edozein jarduera ere.

1.- Laguntzaren xede diren jarduerak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a.- Herritar guztientzat irekita egotea, hau da, genero, arraza, hizkuntza, ideologia, orientazio eta abarrengatik ez diskriminatzea.
- b.- Harremanak eta bizikidetzak sustatzea, bai eta parte-hartzaileen garapen pertsonala ere.
- c.- Programatuta dauden herritarren sektorearen interesari erantzutea.
- d.- Udalak interesgarritzat jotzen dituen jarduerak, irekiak, publikoak eta doakoak.
- e.- Interes soziokulturala izatea eta udalaren beste laguntza-lerro batean sartuta ez egotea.

2.- Deialdi honetatik kanpo geratuko dira jarduera hauek, deialdiaren helburuekin bat ez datozelako:

- a.- Udalarekin lankidetzak-hitzarmen bidez hitzartu diren jarduerak.
- b.- Udalak egiten duen eskaintza bikoizten duten jarduerak.
- c.- Irakaskuntza-jarduerak, irakaskuntza arautuko programetan aurreikusitakoak edo haien paralelo direnak.
- d.- Beste erakunde publiko edo finantza-erakunde batek %70etik gora diruz lagundutako jarduerak.
- e.- Alderdi kultural eta ireki batetik garatzen ez diren jarduerak, izaera ideologiko edo erlijioso nabarmena dutenak.
- f.- Lokalak egokitzea edo eraikinetan edozein esku-hartze mota egitea, ondasun higigarriak eta higiezinak eskuratzea eta elkarte edo talde artistikoei erabiltzeko utzitako udal lokalen funtzionamendutik eratorritako gastuak (alokairua, argia, ura, telefonoa, langileak, etab.).
- g.- Ordezkaritza-gastuak, aperitiboak, otorduak, ostak, opariak (garaikurrak izan ezik), etab.
- h.- Egun batetik gorako iraupena duten kanpamendu, egonaldi edo bidaietako jarduerak.
- i.- Herriko jaietako egun ofizialetan programatutako jarduerak.

8. Ebazpena

Udal-organo eskudunak ebatziko ditu eskaerak, ebaluazio-batzordearen proposamenari jarraiki.

Eskatzaileei deialdiaren ebazpena eta laguntzaren xede diren jarduerak jakinarazi beharko zaizkie. Dirulaguntza hau programen barruan aurkeztutako jarduerak egitera bideratzen dela ulertuko da.

Arau orokor gisa, onartutako aurrekontuaren %70 izango da dirulaguntzaren zenbateko osoa, gehienez ere. Kopuru hori %85ekoa izan ahalko da, zenbateko horren helburua emakumeak ahalduntzea edo gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea bada.

9. Betebeharrak eta kobratzea:

Dirulaguntza hauen onuradun diren elkarteek honako betebeharrak hauek izan beharko dituzte:





- 1.- Kultura Zerbitzuari ahalik eta lasterren jakinaraztea programan eginiko aldaketak, jarduera-aldaketa, jarduera berri bat edo aurreikusitako jardueraren bat egiteko ezintasuna barne.
- 2.- Udalak jardueri buruzko datu guztiak egiaztatzea onartzea.
- 3.- Behin-behinean lokal publikoak utzita erabiltzen dituzten elkarteek beren gain hartu beharko dituzte telefonoa eta ADSL lineak erabiltzearen ondoriozko gastuak, bai eta horien garbiketa eta oinarrizko mantentze-lanak ere.
- 4.- Diruz lagundutako jardueren publizitatea gaztelaniaz eta euskaraz egin beharko da, eta programaren edo jarduera zabaltzerakoan Orkoien Udalaren kolaborazioa jaso beharko da, baita udalaren logotipoa ere.
- 5.- Udaleko Erregistroan, **2024ko abenduaren 1a baino lehen**, egindako jardueren memoria aurkeztea, deialdi honen 10. Klausulan ezarritako irizpideen arabera, emandako laguntzaren erabilera justifikatuz.

Diru-laguntzen ordainketa bi zatitan egingen da:

1. %70a deialdiaren ebazpena jakinarazten den unean, baldin eta ordainduko den zenbateko horrek aurkeztutako azken memorian justifikatutako zenbatekoa gainditzen ez badu, edo deialdira aurkeztutako jarduera berriak benetan gauzatu direla froga badaiteke.
2. Gainerako %30a berriz, erakunde onuradunak dirulaguntza ematea eragin zuen proiektua bete duela eta oinarri hauetan ezarritako betebeharrak bete dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu ondoren eta, betiere, beste dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrera batzuekin batera, jaso beharreko dirulaguntzak jardueraren kostu erreala gainditzen ez badu.

10. Justifikazioa

Ordenantza honen preskripzioen arabera emandako dirulaguntza osoa jasotzeko, **2024ko abenduaren 1a baino lehen** eta Udal Erregistroan, egindako jardueren memoria aurkeztea beharrezkoa da, honako dokumentazioarekin batera:

-Jardueren memoria, honako datu hauekin:

- Egindako jarduera bakoitzaren deskribapen zehatza: erabiltzaile edo parte-hartzaile kopurua (adina, sexua Batzordeak baloratzeko) eta planteatutako helburuen balorazioa.
- Jarduera bakoitza zabaltzeko erabilitako liburuxka, kartel edo bestelako publizitate-euskarrien kopiak.
- Beste erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako dirulaguntzen zerrenda.
- Egindako jarduera bakoitzaren balantze ekonomikoa, jarduerari dagozkion gastuak eta diru-sarrerak jasotzen dituen, elkartearen edo erakundearen titularrak sinatuta. Justifikazioak egindako jardueraren kostu osoari erantzun beharko dio, ez soilik jasotako dirulaguntzaren zenbatekoari (**2. ERANSKINA**)
- Onuradunaren zinpeko aitorpena, egiaztagiria gisa aurkezten diren fakturak diruz lagundutako jarduerari aplikatu zaizkiola egiaztatzen duena.

Fakturak behar bezala ordenatuta eta jarduera bakoitzari multzokatuta aurkeztuko dira.

- Diruz lagundu beharreko jardueren gastua egiaztatzen duten faktura guztiak. Faktura horiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:





- Originalak edo fotokopia konpultsatuta izatea.
 - Jaulkitzailearen NAN edo IFZ eta izena edo sozietatearen izena.
 - Faktura-zenbakia eta jaulkipen-data, jarduera garatu den aldiarekin bat etorri beharko duena. Dirulaguntza eman den urteko data izan beharko dute. Jarduera puntuala bada, jarduera horri dagokion datan.
 - Haborokinak edo borondatezko dietak ordainduz gero, elkarteko presidentearen ziurtagiria, zenbateko horiek ordaindu izanaren ziurtagiria, horiek jaso izanaren agiria (jasotzen duen pertsonaren datuekin) eta kontzeptu horretan ordaindutako zenbatekoaren banku-egiaztagiriak.
- Diruz lagundu beharreko jarduera justifikatu ondoren, benetako kostua emandako dirulaguntza baino txikiagoa bada, Udalak aldea itzultzeko eskatu ahal izango du, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 19.3 artikulua arabera.

11. – Ez-betetzea

Deialdi honen oinarrietan jasotako betebeharrak eta zehaztapenak betetzen ez badira, datuak faltsutzen badira edo dirulaguntza emateko helburuak funtsean aldatzen badira, dirulaguntza baliogabetu ahal izango da, eta jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira. Horrek hurrengo deialdietan parte hartzeko eskubidea galtzea ekarriko du, eta, beharrezkoa izanez gero, dagozkion legezko neurriak hartu ahal izango dira.

12.- Datuen babesa.

Eskaerarekin eta dirulaguntzaren esleipenaren kontrolerako behar diren gainerako datuekin batera biltzen diren datu pertsonalak tratatzeko erakunde arduraduna Orkoiengo Udala izanen da.

Datu pertsonalak dirulaguntzaren esleipenaren espedientea kudeatzeko, tramitzatzeko eta haren jarraipena egiteko erabiliko dira, eta ondoren, dirulaguntzak jaso dituzten elkarteen betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko.

Tratamenduaren lege-oinarria, batetik, interes publikoko egintza bat betetzea izanen da -Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorraren 6.1e artikuluari jarraiki-, eta bestetik, hirugarrenei datuak komunikatzea datzan tratamenduari buruzko legezko betebeharra.

Datuen jakinarazpenak Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legean eta aplikatzekoak diren lege-mailako beste arau batzuetan aurreikusitakoak izanen dira.

Helburua bete ahal izateko bildutako datuak, helburua bete bitartean mantenduko dira, eta baita helburu horren eta datuen tratamenduaren ondorioz sor litezkeen erantzukizunak zehazteko ere, artxibo eta dokumentazioari buruzko araudiaren arabera.

Interesdunek, udaletxeari zuzenduriko idatzi batean (Orkoiengo Iturgain plaza), edo delegadoprotecciondatos@orkoiien.com helbidearen bitartez, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko,





datuen tratamendua mugatzeko, datuen aurka egiteko, erabakiak datu pertsonalen tratamenduan bakarrik oinarrituta ez hartzeko eta datuen eramangarritasunerako eskubideak baliatu ahal izanen dituzte.

Interesdunek eskubidea dute datuak babesteko ordezkartzarekin harremanetan jartzeko edo honen aurrean erreklamazio bat ezartzeko. Harremanetarako kontaktua: delegadoprotecciondatos@orkoien.com

Era berean, datuen babeserako eskubidea urratu zaiela uste badute, interesdunek eskubidea dute Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean erreklamatzeko. Artikulu honetan xedatutako datuen babesari buruzko informazioa prozedurara datuak ekartzen dituzten interesdunei emanen die eskatzaileak, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko datuak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 14. artikulua betetzeko.

13.- Helegiteak

Oinarri hauen eta oinarri horiek garatzen dituzten egintzen aurka, honako helegiteren bat aurkez daiteke:

- Berraztertzeko helegitea egintza eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.*
- Gora jotzeko helegitea Nafarroako Administrazio Auzitegian, egintza jakinarazi eta hilabeteko epean.*
- Administrazioarekiko auzi-errekurtoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.*

Orkoien, 2023ko azaroa. - Alkatea, Alejandro López Orejuela.

